2014

# Iraila-Urria
# Septiembre-Octubre

- Erakusketak Exposiciones
- Ipuin-kontalaria Cuentacuentos
- Musika Música
- Antzerkia Teatro
- Magia Magia
- ikus-entzunezkoa Audiovisual



## Atarrabia-Villava
## Kultura agendaAgenda cultural

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

## Antzokirako arauak

- Kultur Etxeak ikuskizunen programak, interpreteak, datak eta ordutegiak aldatuko ditu, inguruabarrek behartzen badute.
- Sarrerak ez dira aldatuko, ezta sarreren dirua itzuliko ere. Sarreren zenbatekoa bakarrik itzuliko da, ikuskizuna bertan behera uzten bada.
- Inori sarrera galtzen, hondatzen eta suntsitzen bazaio, edo lapurtzen badiote, Kultur Etxeak ez dio beste bat emanen.
- Iritsi, mesedez, ordu-orduan, artistei eta ikusleei errespetua zor baitzaie. Inork ez du aretoan sartzerik izanen, behin ikuskizuna hasita.
- Aretoan sartu aurretik, sakelako telefonoak eta alarmak deskonektatu beharko dira.
- Ez da zilegi areto barruan argazkiak ateratzea, filmatzea eta grabatzea.
- Haurrendako eta familiendako ikuskizunetan, 8 urtetik behekoek heldu batekin sartu beharko dute.
- Ez da zilegi elikagairik eta edaririk aretoan sartzea.
- Kultur Etxeak sarrera ukatzeko eskubidea du.

## Normas de uso del teatro

- La Casa de Cultura podrá modificar los programas, intérpretes, fechas y horarios de los espectáculos si las circunstancias lo exigen.
- Las entradas no se cambiarán ni se reembolsarán. La suspensión del espectáculo será la única causa para la devolución del importe de las entradas.
- No se repondrán las localidades en caso de pérdida, deterioro, robo o destrucción.
- Se ruega máxima puntualidad por respeto a los artistas y al público. No se podrá acceder a la sala una vez iniciado el espectáculo.
- Los teléfonos móviles y alarmas deberán desconectarse antes de acceder al interior de la sala.
- No está permitido sacar fotos, filmar y grabar en el interior de la sala.
- En los casos de espectáculos infantiles y familiares los menores de 8 años deberán entrar acompañados de una persona adulta.
- No se permite acceder a la sala con alimentos ni bebidas.
- La Casa de Cultura se reserva el derecho de admisión.

Erakusketa
Exposición

# "Art Arrabia"

**28**
Abuztua
**Agosto**
**-**
**12**
Iraila
**Septiembre**

**Pintura-Argazkia-Eskultura / Pintura-Fotografía-Escultura**
Herriko pintore, argazkilari eta eskultoreen talde erakusketa / Muestra colectiva de pintores, fotógrafos y escultores locales

**Ordua / Hora**
18:00 - 21:00. Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**Lekua / Lugar**
Erakusketa gela / Sala de exposiciones
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita



**Pintura / Pintura:** Berta Aranguren, Javier Eguiluz, Miguel Ángel Eugui, Milagros Gay, Luis Liberal, Puri Sorbet, Asun Casado, José Manuel MartÍnez de Lizarrondo
**Argazkia / Fotografia:** Javier Bengoetxea, Jesús Calvo Rubén Domínguez, Abrahám Domínguez, Pilar Izquierdo, Aitziber Luquin, Paco Ocaña, Mercedes Pascual, Fernando Pla
**Eskultura / Escultura:** Oscar Guerrero, Maru Gutiérrez

Erakusketa
Exposición

**16 - 26**
Iraila
**Septiembre**

**Ordua / Hora**
18:00 - 21:00
Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**Lekua / Lugar**
Erakusketa gela / Sala de exposiciones
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita

**Hitzaldia, irailak 25, 19:30 / Charla 25 septiembre, 19:30**
"Características y aportaciones del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra"
**Hizlariak / Ponentes**
Emilio Majuelo, Gotzon Garmendia, Juan Carlos García

## "Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak Mendebaldeko Pirinioan" /

## "Esclavitud bajo el franquismo: carreteras y fortificaciones en el Pirineo Occidental"



Erakusketan ageri dira Gerra Zibileko preso errepublikanoen batailoiek Pirinioetan egindako lanak. 16 paneletan azalduta dago nola sortu zen bortxazko lanaren sare hori eta nola eraiki ziren errepideak eta fortifikazioak.

*Ilustra los trabajos realizados en el Pirineo por los batallones de prisioneros republicanos de la Guerra Civil. En 16 paneles se explica cómo se formó esta red de trabajo forzado y cómo se construyeron carreteras y fortificaciones.*

**Hitzaldia, irailak 25, 19:30 / 16 septiembre, 19:30:** Inaugurazioa eta aurkezpena / Inauguración y presentación. Fernando Mendiola, Ioar Cabodevilla

## "Memoriaren Gotorlekua. Memoria Historikoa Interpretatzeko Gunea"

## "Fuerte de la Memoria. Espacio de Interpretación de la Memoria Histórica"



Memoria Historikoa Interpretatzeko Gune baten proiektua dago ikusgai, Ezkaba mendiko gailurrerako pentsatua, San Kristobal gotorlekuan. Honatx ideia: iritsi al daiteke eraikin bat izatera leku batean gertatukoaren memoria?

*Proyecto de centro de Interpretación de la Memoria Histórica en la cima del monte Ezkaba, en el Fuerte de San Cristóbal. La idea es, ¿puede un edificio llegar a ser memoria de lo sucedido en un lugar?*

Erakusketa
Exposición

**Ordua / Hora**
18:00 - 21:00
Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**Lekua / Lugar**
Erakusketa gela / Sala de exposiciones
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita

## "Isildutakoa lurpetik ateratzen. Egia, justizia eta erreparazioa" / "Desenterrando el silencio. Verdad, justicia y reparación"

**Irailak 30, 19:30 / 30 septiembre, 19:30:**
Inaugurazioa eta aurkezpena / Inauguración y presentación



Argazki sorta ederrean bildua dago Nafarroako Memoria Historikoaren Elkartearen 12 urteko ibilbidea. Gerra Zibilean Nafarroan eraildako 2.400 pertsonen istorioak argira ateratzeko ahaleginean dabil; istorio isilduak errepresalien beldur. Asmoa baita, hura gertatu zenetik urte sail luzea igaro den honetan, eraildakoei eta familiakoei duintasuna itzultzea.

*Recorrido fotográfico que recoge los 12 años de existencia de la Asociación de la Memoria Histórica de Navarra en su intento de rescatar las historias silenciadas por miedo a represalias de 2.400 personas asesinadas en Navarra durante la Guerra Civil para, muchos años después, devolverles la dignidad, a ellos y a sus familias.*

**30**
Iraila
**Septiembre**
**-**
**17**
Urria
**Octubre**

**Hitzaldia, urriak 2, 19:30 / Charla, 2 octubre, 19:30**
**"**La represión: el destino de la Villava roja"
**Hizlaria / Ponente**
Peio Monteano

**Hitzaldia, urriak 16, 19:30 / Charla, 16 octubre, 19:30**
**"**Desenterrando la historia robada"
**Hizlariak / Ponentes**
Paco Etxeberria, Josefina Lamberto

Erakusketa
Exposición

# “Entre la ciudad sí y la ciudad no”

**Foto 67-M taldearen argazkiak / Fotografías del grupo Foto 67-M**

**20 - 31**
Iraila
**Septiembre**

**Ordua / Hora**
18:00 - 21:00
Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**Lekua / Lugar**
Erakusketa gela / Sala de exposiciones
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita

**Egileak / Autores/as**
Aitziber Luquin, Ruben Dominguez Ocon, Javier Bengoetxea, Iñigo San Martin, Iosu Calvo, Mercedes Pascual, Fernando Pla, Paco Ocaña, Marian Inda, Pilar izquierdo, Abraham Dominguez



Gure bizitzak hiriko algararen eta mendiko lasaitasunaren artean isurtzen dira. Gelditu, begiratu eta ,batzuetan, oso atsegina da hirigintza eta giza garapenari so egitea, hazten ari diren loretxo ttikiei behatzea bezain atsegina, edo gure makinetatik ihesi doazen intsektuei so egitea bezain atsegina.

*Nuestras vidas transcurren entre el bullicio de la ciudad y la tranquilidad del campo. Detenerse, mirar, contemplar el desarrollo urbanístico y humano es tan agradable, a veces, como observar las pequeñas florecillas en crecimiento, o a los insectos escapando de nuestras máquinas.*

**6**

Iraila
**Septiembre**
Larunbata **Larunbata**

# Benito Lertxundi

**Ordua / Hora** 21:30
**Lugar / Lekua** Indurain Anaiak Kiroldegia / Polideportivo Hermanos Indurain
**Sarrera / Entrada** 18 € aurrez, 20 € leihatilan / 18 € anticipada, 20 € taquilla






Benito Lertxundiren disko berria ederki landutako sormen-lana da, edertasun artistiko handia dario alde guztietatik eta hausnarketa sakona proposatzen du egiaz eta bizitzaz. Azaleko argazkia Mireia Berenguer gazte katalanak egina da, Euskal Herriaz maitemindua Hondarribira duela 9 urte bizitzera etorria. Eta, halabeharrez edo, Lertxundik haren argazkia ikusi zuen, Mireiak egunsentia baino lehen Jaizubiako paduretan harturiko argazki bat, ETBko eguraldi-saioan agertutakoa. Hura zen nahi zuen irudia eta egun da "Oroimenaren oraina" identifikatzen duen irudia.

---

*El nuevo disco de Benito Lertxundi es un depurado trabajo creativo de gran belleza artística, una profunda reflexión sobre la verdad y sobre la existencia. La autora de la fotografía de portada es la joven catalana Mireia Berenguer, que, enamorada de Euskal Herriai, decidió hace 9 años establecerse en Hondarribi. Y quiso la casualidad que Lertxundi viera su foto de las marismas de Jaizubia antes del amanecer en la sección del tiempo de la ETB. Aquélla era la imagen que buscaba y hoy es la imagen que identifica "Oroimenaren oraina".*

Ikus-entzunezkoa
Audiovisual

**18**

Iraila
**Septiembre**
Osteguna
**Jueves**

# "Atarrabia gure adineko jendearen oroimenean, ondare ez-materialaren bilketa" / "Villava en la memoria de nuestros mayores, recopilación de patrimonio inmaterial"

**Ordua / Hora** 20:00
**Lekua / Lugar**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada**
Doan / Libre

**Elkarrizketatuak / Personas entrevistadas**
Vicenta Azkona, Cecilia Donazar, Lidia Cajal, Conchi Mugueta, Mª Jesús Elcano, Mª Jesús Urra, Marcos Vidaurreta, Antonio Agüero



Lan hau NUPek sustaturiko "Nafarroako ahozko ondare eta ondare ez-materialaren artxiboa" proiektuaren baitan dago, eta Udalak duela gutxi egin du harekin bat. Atarrabiako auzokideen lekukotasunak bildu dira. Nafarroako ondare ez-materialaren bilketan sarturik dago; bilketa elkarrizketen bidez egiten ari da, idatzizko eta ikus-entzunezko artxibo multimedia bat osatzeko.

---

*En este trabajo, que forma parte del proyecto "Archivo del patrimonio oral e inmaterial navarro" promovido por la UPNA y al que recientemente se ha sumado el Ayuntamiento, se recogen los testimonios sobre el municipio y vecinos y vecinas de Villava. Forma parte de la recopilación del patrimonio inmaterial de Navarra a través de entrevistas que este archivo multimedia, sonoro, audiovisual y textual viene realizando.*

# “Pecata minuta”

**Konpainia / Compañía**
Jus la Rotxa antzerki ikasgela / Aula de Teatro Jus la Rotxa
**Egilea / Autor**
Ramón Barea
**Zuzendaria / Director**
Jaime Malón
**Aktoreak / Intérpretes**
Ana Lebrón, Pili Peletero, Sagrario Zubilaga, Asun Simón, Juana Aguirrezabala, Deme Irigoyen




Lan hau vaudeville mistiko bat da klausurako lau mojarentzat, baina berdin-berdin izan daitezke inozotasunak jota dauden lau nerabe; laurak ere irrikitan daude inguruan duten mundura ateratzeko. Hogei urte daramate beren borondatez hertsirik komentuan, eta kanpora atera nahi dute, mundua nola aldatu den ikusi eta atzera komentura itzultzeko.

---

*Vodevil místico para cuatro monjas de clausura que bien pueden ser cuatro adolescentes en estado de ingenuidad, que narra su anhelo por asomarse al mundo que les rodea. Pretenden escapar del convento en el que llevan encerradas voluntariamente veinte años, quieren salir, ver cómo ha cambiado el mundo y volver al convento.*

**19**
Iraila
**Septiembre**
Ostirala
**Viernes**

**Hora / Ordua** 20:00
**Lugar / Lekua**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 3 €
**Iraupena / Duración**
75 min

**Nafarroako Antzerki Amateurraren III. Erakustaldia / III Muestra de Teatro Amateur de Navarra**

20

Iraila
**Septiembre**
Larunbata
**Sábado**

**Hora / Ordua** 19:00
**Lugar / Lekua** Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 9 €
**Iraupena / Duración** 90 min

# "Milaka Argi" Bertso-saioa / "Milaka Argi" Bertsos

**Organiza / Organiza**
Bertso-saioa "Milaka Argi Nafarroan" kanpainaren barnean dago, eta Iruñeko IKAk antolatu du Atarrabiako Udalarekin elkarlanean / Sesión de bertsolaris dentro de la Campaña "Milaka Argi Nafarroan", organizada por IKA de Pamplona con la colaboración del Ayuntamiento de Villava



**Bertsolariak:** Julio Soto (Nafarroako txapeldun ohia), Sustrai Colina, Jon Maia, Igor Elortza eta Amets Arzallus; guztiak ere finalista izan dira Euskal Herriko bertsolari txapelketan. Gai-jartzailea Ainhoa Aranburu izanen da.

***Bertsolaris participantes:** Julio Soto (ex campeón de Navarra), Sustrai Colina, Jon Maia, Igor Elortza y Amets Arzallus; todos ellos han sido finalistas en el campeonato de bertsolaris de Euskal Herria. La persona que propone el tema será Ainhoa Aranburu.*

# “Hermanas”



**Konpainia / Compañía**
Incierto Troupe
**Egilea / Autora**
Ventura Ruiz
**Zuzendaria / Director**
Oscar Orzáiz
**Aktoreak / Intérpretes**
Cristina Nagore, Joxepe Gil, Ventura Ruiz, Leyre Etayo, Txiki Medina, Josu Castillo

**21**
Iraila
**Septiembre**
Igandea
**Domingo**

**Hora / Ordua** 20:00
**Lugar / Lekua**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 3 €
**Iraupena / Duración**
55 min

**Nafarroako Antzerki Amateurraren III. Erakustaldia / III Muestra de Teatro Amateur de Navarra**

Diotenez, denborak dena sendatzen omen du… beti ez da horrela izaten, ordea. Zenbaitetan, erresumina gogor lotzen zaio barrenari eta gure oraina markatzen du. Horixe gertatu zaie lan honetako pertsonaiei –hiru ahizpa eta haietako baten senarrari– berriz ere elkar topatu dutenean, urte sail luzea igaro ondoren. Ahizpen aita da topaketaren eragilea, zeren, hilda badago ere, presentziarik handieneko pertsonaia baita agertokian.

*Dicen que el tiempo lo cura todo…, pero no siempre es así. Hay veces que el resentimiento se agarra fuerte por dentro y marca nuestro presente. Esto es lo que les sucede a los personajes de esta obra, tres hermanas y el marido de una de ellas en su reencuentro muchos años después. El causante de este reencuentro es el padre de ellas que, aunque ha muerto, es el personaje con más presencia en escena.*

**26**

Iraila
**Septiembre**
Ostirala
**Viernes**

**Konpainia / Compañía** Gabalzeka
**Egilea eta zuzendaria / Autor y director** Mikel Mikeo
**Aktoreak / Intérpretes** Javier Salvo, Sebas Esquíroz, Amaia Esquíroz, Iosu Kabarbaien Oswaldo

# “El escenario del crimen”



**Ordua / Hora:** 20:00
**Lekua / Lugar:** Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 3 €
**Iraupena / Duración** 70 min

**Nafarroako Antzerki Amateurraren III. Erakustaldia / III Muestra de Teatro Amateur de Navarra**

Antzokira joan, eta zer topatuko besaulki-patioan? Hilotz bat. Zer egin, orduan? Sarrera itzultzen baduzu, susmagarria izan daiteke; beraz, aukeran, hobe barruan gelditu, zure jarlekuan eseri eta jendearen artean ezkutatu. Komedia hau erailketa musikal bat da, polizia-parodia bat, gertakari sinesgaitz bati buruzko ikerketa bat, ikuslerik adimentsuena ere irriz lehertu arte hiltzeko modukoa.

*Vas al teatro y te encuentras a un cadáver en el patio de butacas.¿Qué haces? Devolver la entrada puede levantar sospechas, así que mejor te quedas, ocupas tu localidad y te ocultas entre el  público. Esta comedia es un asesinato musical, una parodia policiaca, una investigación sobre un suceso inverosímil para matar de risa al espectador más inteligente.*

# "Nunca fuimos héroes"

**Konpainia / Compañía**
Tarima Beltza
**Zuzendaria / Director**
Ion Barbarin
**Aktoreak / Intérpretes**
Josu Castillo, Marta Diego, Juan Manuel Herrero, Merche Herrera, Natalia Martín, Amaia Mintegi



Gizarte-klaseen gainetik, ideal politikoen gainetik, itxuraren gainetik…gizakia dago, bai eta giza izaera ere. "Nunca fuimos héroes" antzezlanean ageri dira gizartean bakardade gorriak jota dauden pertsonaiak, gizarte horretatik bizirik ateratzen ahalegintzen direnak. Eguneroko ekintzak erakusten dizkigun tragikomedia bat da, eguneroko portaerak, hau da, ispilu gisara aski ongi balio liezaguketenak.

*Por encima de las clases sociales, de los ideales políticos, de las apariencias... se encuentra el ser humano y su condición humana. "Nunca fuimos héroes" trata de personajes que intentan sobrevivir en una sociedad en la que se encuentran terriblemente solos. Una tragicomedia que nos muestra acciones cotidianas, comportamientos del día a día que muy bien podrían servirnos de espejo.*

**28**
Iraila
**Septiembre**
Igandea
**Domingo**

**Hora / Ordua** 20:00
**Lugar / Lekua**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 3 €
**Iraupena / Duración**
60 min

**Nafarroako Antzerki Amateurraren III. Erakustaldia / III Muestra de Teatro Amateur de Navarra**

federación TEATRO AMATEUR DE NAVARRA
NAFARROAKO AMATEUR ANTZERKIA federazioa

# "La última noche"

**3**

Urria
**Octubre**
Ostirala
**Viernes**

**Ordua / Hora:** 20:30
**Lekua / Lugar:** Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 6 € leihatilan, 4 € interneten / 6 € en taquilla, 4 € en internet
**Iraupena / Duración** 90 min



**Konpainia / Compañía** Al Tran Tran
**Aktoreak / Intérpretes** Pau Perez, Antonio "Turuta", Ruben Hernandez, Ángel Hidalgo, Daniel Sota

Zer eginen zenuke zure bizitzako azken gaua balitz? Zer aldatu nahiko zenuke? Zertaz egonen zinateke harro? Zer amets ikusi nahiko zenuke beteta? Gauza orok balio du. Al Tran Traánek horrelaxe azaltzen du behintzat gaua hastean. Egiazko umore- eta musikajai bat proposatzen du, guztiz inprobisatua. Gure aurreiritzietatik eta beldur faltsuetatik libratzea. Bizitzan benetan garrantzitsua dena esploratzea eta kezkatzen gaituen gauza ororen lepotik irri egitea.

*¿Qué harías si esta fuera la última noche de tu vida?, ¿qué querrías cambiar? ¿de qué te sentirías orgullos@? ¿qué sueño querrías ver cumplido? Todo vale, Al Tran Traán así lo explica al comenzar la noche. Propone una auténtica fiesta de humor y música totalmente improvisada. Librarnos de nuestros prejuicios y falsos miedos. Explorar lo realmente importante en la vida y reírnos a la cara de todo lo que nos preocupa.*

# “Con fajas y a lo loco”

**Konpainia / Compañía**
Tdiferencia
**Zuzendaria / Directoras**
Maite Redín y Adriana Olmedo
**Aktoreak / Intérpretes**
Adriana Olmedo, Maite Redín, Saskia Pérez

napaeactiva 2014




**10**
Urria
**Octubre**
Ostirala
**Viernes**

**Hora / Ordua**
20:30
**Lugar / Lekua**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada**
6 € leihatilan, 4 € interneten / 6 € en taquilla, 4 € en internet
**Iraupena / Duración** 60 min

Bi emakume barrezka ari dira afterhour bateko azotean. Animalia-estanpatuzko minigonen eta takoi jasanezinen atzean, faxa itogarri bat daramate ezkutuan. Nerabe bat iritsi ondoren, zerbait gertatuko da… nerbiostuko dira… “Baina, tira, Ama!!, Zer egiten duzue hemen?” Horra hor nola hasten den haien bizitzako gaurik ero eta dibertigarrienetako bat. Emakume-komedia, ama-alaben komedia, topaketa, haserreak…baina batez ere umorea erruz.

---

*Dos mujeres ríen en la azotea de un afterhour. Tras las minifaldas de estampado animal y los tacones insufribles, esconden una faja asfixiante. Tras la llegada de una adolescente, algo sucede… se ponen nerviosas… “Pero bueno, ¡¡Mamá!! ¿¿qué hacéis aquí??”. Así comenzará una de las noches más locas y divertidas de su vida. Comedia de mujeres, de madres e hijas, de encuentros, desencuentros… pero sobre todo de mucho humor.*

**17**
Urria
**Octubre**
Ostirala
**Viernes**

# "Que nadie se mueva"

**Ordua / Hora:**
20:30
**Lekua / Lugar:**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 6 € leihatilan, 4 € interneten / 6 € en taquilla, 4 € en internet



**Konpainia / Compañía**
Esteban Roel
**Aktoreak / Intérpretes**
Sergio Lobardía, Nico Romero, Jon Hernández, María Rayo

Erailketa batek oso biktima berezia utzi du eta ikerketa zorrotza behar da. Lau segurtasun-kidegotako lau polizia "behartuak" egonen dira elkarlanean aritzera, hilketa argitzeko. Polizia Nazional bat, Mosso d´Esquadra bat, Ertzain bat eta Guardia Zibil bat dira, eta guztiek kasuaz jabetu nahi dute; bakoitzak bere lurraldea eta bere kidegoaren ohorea defenditzen ditu. Etengabean irri egiteko satira.

---

*Un homicidio con una víctima muy especial requiere una investigación meticulosa. Cuatro agentes pertenecientes a cuatro diferentes cuerpos de seguridad se ven "obligados" a colaborar para resolverlo. Son un mosso d´esquadra, un ertzaina, un policía nacional y un guardia civil, empeñados en hacerse con el caso defendiendo cada uno su territorio y el honor de sus respectivos cuerpos, además del propio. Una sátira para no parar de reir.*

**Hora** / **Ordua**
18:00
**Lugar** / **Lekua**
Antzokia / Teatro
**Sarrera** / **Entrada** 3 €
**Iraupena** /
**Duración** 60 min

# "Txanogorritxo rock"

## euskaraz / euskera




**18**
Urria
**Octubre**
Larunbata
**Sábado**

**Konpainia** /
**Compañía**
Tdiferencia
**Zuzendaria** /
**Director**
Miguel Molina
**Aktoreak** /
**Intérpretes**
Adriana Olmedo, Maite Redín, Nerea Bonito

Beti kapa gorri txanoduna daraman neskatila bat bizi da basoan. Txanogorritxo esaten diote. Haren amona gaixo dago eta Txanogorritxok saski bat eraman behar dio ogia, esnea, eztia eta limoi pixka batekin… Eztarrirako ona da eta, horrela ahotsa sendatu ahal izanen zaio eta rock abestiak garrasi batean abestu ahal izanen ditu… Egon… unetxo bat… Baina hau ez al da Txanogorritxoren betiko ipuina...? Bai, baina txanogorritxo hau rockzalea da, eta barre egiteko eta gu besaulkietan dantzarazteko gogo handia du.

---

*En el bosque vive una niña que siempre lleva una capa colorada y a la que todos le llaman Caperucita Roja. Su abuela está enferma y va a llevarle una cesta con pan, leche, miel y un poquito de limón, así podrá recuperar la voz y cantar canciones de rock… Un momento… Pero, ¿este no era el cuento de Caperucita Roja…? Sí, pero es una caperucita rockera, con muchas ganas de reírse y de hacernos bailar en las butacas.*

## Magia eta hip-hop
## Magia y Hip-Hop

**19**

Urria
**Octubre**
Igandea
**Domingo**

**Ordua / Hora:** 20:00
**Lekua / Lugar:** Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada** 6 € leihatilan, 4 € interneten / 6 € en taquilla, 4 € en internet
**Iraupena / Duración** 65 min

nadaeactiva 2014

# "Magic Hop"

**Zuzendaritza / Dirección**
Belén Álvarez, Pedro III, Aida Martínez
**Aktoreak / Intérpretes**
Pedro III, Aida Martínez, Akira Yoshira, Laura Serrano, Nekane Itoiz, Rafa Arenas



Magia eta hip-hop ikuskizuna, magiaren ilusio handiekin jendea txunditzeko eta musika, dantza eta erritmorik egungoena ikusleengan zirrara eragiteko. Pedro III.ak munta handiko magian barneratuko gaitu: agerpenak, eskapismoa, ihesak… Bitartean, dantzarik urbanoenaren bost dantzari ederki gurutzatuko dira magoaren magia-saioetan, beren koreografiak dakartzatela eta akrobazia ikusgarriak eginez.

*Espectáculo de magia y hip-hop que impacta con las grandes ilusiones de la magia y emociona con la música, el baile y el ritmo más actual. Pedro III nos adentra en la magia a gran escala: apariciones, escapismo, evasiones... Y cinco bailarines de la danza más urbana se entrecruzan en sus números con sus coreografías y sus frenéticas acrobacias.*

## "Caperucita rock"

**Gaztelania / castellano**




**Hora** / **Ordua** 18:00
**Lugar** / **Lekua** Antzokia / Teatro
**Sarrera** / **Entrada** 3 €
**Iraupena** / **Duración** 60 min

**25**
Urria
**Octubre**
Larunbata
**Sábado**

**Konpainia** / **Compañía** Tdiferencia
**Zuzendaria** / **Director** Miguel Molina
**Aktoreak** / **Intérpretes** Adriana Olmedo, Maite Redín, Nerea Bonito

Beti kapa gorri txanoduna daraman neskatila bat bizi da basoan. Txanogorritxo esaten diote. Haren amona gaixo dago eta Txanogorritxok saski bat eraman behar dio ogia, esnea, eztia eta limoi pixka batekin… Eztarrirako ona da eta, horrela ahotsa sendatu ahal izanen zaio eta rock abestiak garrasi batean abestu ahal izanen ditu… Egon… unetxo bat… Baina hau ez al da Txanogorritxoren betiko ipuina...? Bai, baina txanogorritxo hau rockzalea da, eta barre egiteko eta gu besaulkietan dantzarazteko gogo handia du.

*En el bosque vive una niña que siempre lleva una capa colorada y a la que todos le llaman Caperucita Roja. Su abuela está enferma y va a llevarle una cesta con pan, leche, miel y un poquito de limón, así podrá recuperar la voz y cantar canciones de rock… Un momento… Pero, ¿este no era el cuento de Caperucita Roja…? Sí, pero es una caperucita rockera, con muchas ganas de reírse y de hacernos bailar en las butacas.*

Antzerkia
Teatro

# “Muchas noches, buenas gracias”

**26**
Urria
**Octubre**
Igandea
**Domingo**

**Ordua / Hora:**
20:00
**Lekua / Lugar:**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada**
6 € leihatilan, 5 € interneten / 6 € en taquilla, 5 € en internet

**“Vaya semanita”-ko aktoreen komedia bat / Una comedia de los actores de “Vaya semanita”**

**Aktoreak / Intérpretes**
Andoni Agirregomezkorta, Lander Otaola



Egun seinalatua da, Annual Sariak banatuko baitira. Gizarteko arlo guztietako profesionalak daude ospakizunari adi. Horra hor aitzaikia horrelako ekitaldiei buruzko satira bat egiteko. Pentsatu Asturiasko Printzea sarietan, ekarri gogora Transformers, gogoratu Gila. Ikuskizun honek hiruetariko elementuak ditu.

*Es el día más esperado, se entregan los Premios Annual. Una ceremonia de la que están pendientes los profesionales de todos los ámbitos de la sociedad. Éste es el pretexto para realizar una sátira sobre este tipo de eventos. Pensad en los Premios Príncipe de Asturias, pensad en Transformers, pensad en Gila. Este espectáculo tiene elementos de los tres.*

**Hora / Ordua** 20:00
**Lugar / Lekua**
Antzokia / Teatro
**Sarrera / Entrada**
5 € leihatilan, 4 € interneten / 5 € en taquilla, 4 € en internet
**Duración** 60 min

# “On-Off”

**31**

Urria
**Octubre**
Ostirala
**Viernes**




**Konpainia / Compañía**
Creaciones Matxin
**Zuzendaria eta aktorea / Director e intérprete**
Natxo Matxin

Ikuskizun komiko honetan mimo-clown eta animazio teknikak uztartu dira. Hitza, keinua eta mugimendua uztarturik. Ikuskizun intimoa, zinezkoa eta pertsonala. Fikzioa eta errealitatea nahasita ageri dira (gertatzen eta bururatzen zaizkidan gauzez), eguneroko bizitzaren alderdi batzuei buruz.

*Espectáculo cómico de mimo-clown y técnicas de animación. Fusión de palabra, gesto y movimiento. Espectáculo íntimo, sincero y personal. Mezcla de ficción y realidad (de cosas que me ocurren y se me ocurren), sobre algunos aspectos de la vida cotidiana.*

## Ipuin-kontalariak
## Cuentacuentos

**Ordua / Hora**
18:00
**Lekua / Lugar**
Erakusketa gela /
Sala de exposiciones
**Entrada / Sarrera**
Dohainik
(gonbidapena saioa hasi baino 20 minutu lehenago hartu behar da) / Gratuita (previa recogida de invitación 20 minutos antes de la función)
**Gutxienezko adina / Edad mínima**
4 urte / 4 años



**28**

Urria **Octubre**
Asteartea **Martes**

### "Escena primera toma uno"

Estefanía de Paz.
Gaztelania. *Castellano*



**30**

Urria **Octubre**
Osteguna **Jueves**

### "Ipuinen lapikoa"

Izaskun Mujika.
Euskaraz. *Euskera*

## Sarreren salmenta / Venta de entradas

- Leihatilan, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta sarrerarik gelditzen bada, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago.
- Interneten: www.atarrabia.es / www.villava.es

- En taquilla de lunes a viernes, de 16 a 21 horas y media hora antes del comienzo del espectáculo, si quedasen localidades.
- En internet: www.atarrabia.es / www.villava.es

## Tarifak, deskontuak / Tarifas, descuentos

- Sarrera 6 € leihatilan (weba: 4 €, eta langabea: 4 €)
- Sarrera 5 € leihatilan (weba: 4 €, eta langabea: 4 €)

- Entrada 6 € en taquilla (web: 4 € y desempleado/a: 4 €)
- Entrada 5 € en taquilla (web: 4 € y desempleado/a: 4 €)



**HARPIDETZA GALDETEGIA / FORMULARIO DE SUSCRIPCIÓN**

Kultura Agenda e-postaz jaso nahi baduzu, bete hurrengo galdetegia, moztu lerro puntudunetik eta eraman Kultur Etxeko atezaindegira. Bestela, bidali postaz: Kultur Etxea, karrika Nagusia 38. 31610. Atarrabia.

Si desea recibir la Agenda Cultural, vía email, rellene el siguiente formulario, recórtelo por la línea de puntos y entréguelo en conserjería de la Casa de Cultura o envíelo por correo a: Casa de Cultura, calle Mayor 38. 31610. Villava.

Izena / Nombre: ____________________

Abizenak / Apellidos: ____________________

Herria / Localidad: ____________________

E-posta / E-mail / ____________________

www.villava.es

### Iraila
### Septiembre

| A L | A M | A M | O J | O V | L S | I D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

### Urria
### Octubre

| A L | A M | A M | O J | O V | L S | I D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

## Iraila / Septiembre

**28 Abuztua-Agosto Erakusketa**. ***Exposición.*** "Art Arrabia". Argazkia-pintura / Fotografía-pintura

**06 Musika.** ***Música.*** Benito Lertxundi

**16 Erakusketak**. ***Exposiciones.*** Memoria historikoari buruzko bi erakusketa / Dos exposiciones sobre la memoria histórica

**18 Ikus-entzunezkoa.** ***Audiovisual.*** "Atarrabia gure adineko jendearen oroimenean" / "Villava en la memoria de nuestros mayores"

**19 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Pecata minuta". Jus la Rocha

**20 Erakusketa**. ***Exposición.*** "Entre la ciudad sí y la ciudad no" Argazkia / Fotografía

**20 Musika.** ***Música.*** "Milaka Argi" Bertso-saioa

**21 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Hermanas". Incierto Troupe

**26 Antzerkia.** ***Teatro.*** "El escenario del crimen". Gabalzeka

**28 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Nunca fuimos héroes". Tarima Beltza

**30 Erakusketa**. ***Exposición.*** Memoria historikoari buruzko erakusketa / Exposición sobre la memoria histórica

## Urria / Octubre

**03 Musika.** ***Música.*** "La última noche". Al Tran Tran

**10 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Con fajas y a lo loco". Tdiferencia

**17 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Que nadie se mueva". Esteban Roel

**18 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Txanogorritxo rock". Euskara / Euskera. Tdiferencia

**19 Magia eta Hip-hop.** ***Magia y Hip-hop.*** "Magic Hop"

**25 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Caperucita rock". Gaztelania / Castellano. Tdiferencia

**26 Antzerkia.** ***Teatro.*** "Muchas noches, buenas gracias". Andoni Agirregomezkorta, Lander Otaola

**28 Ipuin-kontalaria.** ***Cuenta cuentos*** Gaztelania / Castellano

**30 Ipuin-kontalaria.** ***Cuenta cuentos*** Euskaraz / Euskera

**31 Antzerkia.** ***Teatro.*** "On-Off". Creaciones Matxin

Nafarroako Gobernua

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

ESPACIO ASOCIADO / ELKARTUTAKO GUNEA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA
RED DE TEATROS DE NAVARRA